

## EKITALDIAK-EVENTOS / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

## Astarbe sagardotegiak 450 urte bete ditu.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 20/05/2013 - 16:28

Sin comentarios



**Astarbe sagardotegiaren 450. urteurrena** ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, besteak beste, datorren maiatzaren 25ean, **sagardotegiaren ate irekiera jardunaldia** ospatuko da.

**Mendiola** baserria eta sagardotegia, gaur egungo Astarbe, aipatzen den lehen dokumentu historikoa **1563**ko maiatzaren 20koa da. Orduik gaurdaino bertako nagusiek, belaunaldiak joan belaunaldiak etorri, sagarraren landatzean eta sagardoaren ekoizpenan lan egin dute eta Astarbe sagardotegia Gipuzkoako enpresarik zaharrenetakoan bilakatu da.

**Astarbe sagardotegiak** bertako eta kalitatezko sagarraren alde apustua egin zuen eta bertako sagar

izendegi ofizialean baserriaren zein sagardotegiaren izena daramaten sagarrak daude: **Mendiola eta Astarbe**.



Produktu berriak ateratzeko ikerketa eta garapen proiektuetan inbertitzen ere hasi zen Astarbe sagardotegia; hala, **"Byhur"**, merkatura aurkeztu berri duen sagardo apardunen linea berria da. "Champagnoise" edo metodo tradizionalen ekoiztutako produktua da, botilan bigarren hartidura jasandakoa, urre kolorekoa, fruta zaporekoa eta orekatua.

**Ospakizun festa**

Datorren larunbatean, maiatzaren 25ean, ate irekiko jardunaldia antolatu dute Astarbe sagardotegian, Astigarragakoek zein kanpotik gerturatu nahi dutenek jai giroan haur, gazte eta helduentzat prestatu diren hainbat ekintzetaz gozatu dezaten.

Bisita gidatu batek baserriaren eta sagardotegiaren 450 urte hauetan izan diren gora behern berri emango digu eta ondoren, musikak, sagardoak eta pintxoek jai giroa jarriko dute.

Arratsaldean sona handiko bertsolariez eta musika kontzertuaz gozatu ahal izango da. Afari-meriendarako burruntzia zaingo da.

**Egitaraua:**

11:00 Inaugurazioa.

11:05 Bisita gidatuak (orduro). Pintxoak, sagardoa. Haur eta helduentzako joko eta entretenigarriak. trikitixa.

18:00 Bertsolariak.

19:30 Afari-merienda: txekor errea (egunean zehar ikusgai izango da). Kontzertua.

**Tags:** aniversario, Astarbe, astigarraga, Byhur, Mendiola, sagardo aparduna, sagardotegia, sidra espumosa, sidreria, urteurrena

Anterior post

CONCURSO DE FOTOS "Manzanos en flor" en

Facebook."Sagastiak loretan" ARGAZKI

LEHIAKETA Facebook-en.

Tu comentario / Zure komentarioa

## Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 559 575  
[info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)  
[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)

RSS Feed

Twitter

Facebook

## Buscar / Bilatu

## Categorías

Azokak-Ferías

Besteak-Otros

Ekitaldiak-Eventos

Esperientziak-Experiencias

Formazioa-Formación

Gastronomía-Gastronomía

Historia-Historia

Kultura-Cultura

Lehiaketak-Concursos

Museos-Museoak

Sagarra-Manzana

Sagastia-Manzanal

Sidra-Sagardoa

Sidrerías-Sagardotegiak

Turismoa-Turismo

## Post Recientes



Astarbe sagardotegiak 450 urte bete ditu.



"Sagastiak loretan" ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.



"Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.



2013 UDA: "SAGARDOA ETA ITSASOA" esperientzia turistikoa